Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

2320

AGINDUA, 2010eko apirilaren 13koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.d) artikuluan eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailean hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egin zuen Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2010eko otsailaren 22ko Aginduaren laugarren oinarrian (martxoaren 15eko EHAA, 50. alea) ezarritakoaren arabera, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Miren Aintzane Izaguirre Etxeberria andrea Sailaren Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako lurralde-ordezkari izendatzea (511786 kodea, 12. dotazioa).

Bigarrena.– Izendapen honek 2010eko apirilaren 19tik aurrera izango ditu ondorioak.

Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren aurrean, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko apirilaren 13a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza
eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

2320

ORDEN de 13 de abril de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se resuelve la convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Departamento.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2.d) de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y en la base cuarta de la Orden de 22 de febrero de 2010 (BOPV n.º 50, de 15 de marzo), del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se anunciaba convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Departamento,

DISPONGO:

Primero.– Nombrar a doña Miren Aintzane Izaguirre Etxeberria, Delegada Territorial, código 511786, dotación 12, en la Delegación Territorial del Departamento en Bizkaia.

Segunda.– Su nombramiento surtirá efectos el día 19 de abril de 2010.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, podrá interponerse, recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de abril de 2010.

El Consejero de Industria, Innovación,
Comercio y Turismo,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.